


**Larunbat honetan,
errauste-plantaren
aurkako manifestazioa**

Gazte Eguna

**Igandean, Txerriaren
Festa Zubietan**

noauea



Matrakak Talde Feminista

Hitzetatik ekintzetara pasa beharra dago”

ETXETXO LORATEGIA



Erramuak, zentruak, zuhaitzak
eta landareak.

Aukera zabala hemen aurkituko duzu.

Egun osoan zehar zabalik!

ZUBIETA



ITZIRA
ERAKUNTZAK

**IREKIERA
BERRIA!**



943 530 337
607 119 313

• gremioen koordinaketa • berritze lanak
• sukaldeak • komunak • mota guztietako obrak
• aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €_{tik}



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Behobia-Donostia, oinez

O hitura hazten ari omen da. Behobia-Donostia proba hasi aurretik, lasterketako ibilbidea oinez osatzekoa alegia. Korrika egin ezin dutenentzako alternatiba ezinhobea, irudiko herritarrentzat tartean. Proba egunean, goizeko 7:00etarako bildu ohi dira Usurbilen eta Behobiarantz joaten dira. Han 7:30etan oinez abiatzen dira errepide bazterretik Donostiarantz. Patinatzaileak igaro baino lehen Oreretara heldu nahi izaten dute, gero antolatzaileek bidea ixten dute eta. Handik hiribururantz espaloian joateko aukera dute. Festa handian bihurtu den Behobia-Donostian parte hartu eta jai giroaz gozatzeko beste modu bat dugu honakoa. Lasterketa egin ezin dutenentzako alternatiba ezinhobea.



Goizeko 7:30ean abiatu ziren Behobiatik oinez. Errepide bazterretik iritsi ziren Donostiara.

Laburrean

Errifa zozketa

4.619 izan da Usurbil Kirol Elkartek eginiko errifa zozketako zenbaki saritu berria. Jabeari, Aginaga sagardotegian 2 lagunentzako afaria egokitu zaio.

1965 kinto bazkaria

Azaroaren 21ean, larunbatez bilduko dira Olarrondo jatetxean. Izena emateko deitu bi telefono zenbakiotako batera: 627 271 215 (Montse) edo Ana (686 969 112).

1952 kinto bazkaria

Azaroaren 29an bilduko dira Patri jatetxean, arratsaldeko 14:00etan. Otorduen prezioa, 36 euro. Izen emateko epea azaroaren 19an amaituko da. Apuntatzeko hona deitu: 943 361 380.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Aritz Gorriti

Erasoari eraso... noiz arte horrela?

Hilak 11 zituela izan zitekeen, oraingoan ordea, ostirala eta 13an jazo dira Parisen. Eraso latzen berri izan genuen lehen unetik asma zitekeen, erasoan oinarrituriko erantzuna estatuko mugetatik kanpo. Eta horrela, handik denbora batera, berriz, ezustean, gu bizi garen zonalde hau erasotua izan arte. Ezin "bukle" horretatik atera, edo atera nahi ez. Orain ere "gerran gauden". Hala zioen, futbol zelaian lehen leherketak entzun eta minutu gutxira, partidak aurrera segitzen zuen bitartean, herrikideak bertan utzita, zelaitik babesera ospa egin zuen Frantziako presidenteak. Gero bai, "gizonak" bere babeslekutik gerra deklaratu dio mundu erdiari. Parisekoa gertatu aurretik bonbardatzen ari zenari, bonbardaketa gehiago iragarri dizkio. Erasoari ekin ere bai. Eta guztia, teoriar, gu guztion segurtasunaren izenean. Ondorioek kalteak erabakiok hartu dituztenek

ez, herritarrek pairatu behar izan arren. Erasotu beharra al dago norbera seguru sentitzeko? Norengan pentsatuta hartzen dira erabakiok? Ulertezina inondik ere. Eta latzena, etxean izandako odol isurketari, atzerrira joan eta odol gehiago isuriz, gutxi batzuek piztutako gerraren biktimak betikoak ditugu; atentuetan hildakoak eta bizirik ateratzea lortzen dutenak batetik. Eta sorterritik ihesi joan behar izan, babes bila dabilzan, sarri izenik ere jarri ezin diegun eta mugak itxi nahi zaizkien errefuxiatuak bestetik; batzuek (politikari, kazetari eta gotzainen bat tartean) maltzurki iradoki dute-nez, "terroristak" ere izan daitezke. Sutura gasolina gehiago botatzen. Ikaragarria. Halako jarrerak argi uzten dute berriz; munduko gatazka ezberdinak sufritzen dituzten biktima guztiak ez dira berdinak. Biktima ere ez

batzuk, zenbaiten ikuspegitik. Itotzerainoko (des)informazio egunotan, emozioen biltoki eta hedatzaile izan diren sare sozialetan erabiltzaileen profileko irudian Frantziako bandera jartzeko deialdia egin dute. Desadostasunak eragin dituen. Hala zioen bolo-bolo ibili den mezu batek: "Frantzia atentatu terrorista egin eta bat batean mundu osoa "shock" egoeran aurkitzen da. Denak Frantziako bandera eta Eiffel dorrea erakusten. Sirian bonbarderoak daude etengabe, 300.000 hildako baino gehiago eragin dituzte. Hildakoen ia %30a haurrak. Inork ez du erakusten Siriako bandera erantzun moduan. Zein da bi banderen arteko desberdintasuna?", galdetzen dute. Gogoan izan; Siriako erasotzaileetako bat dugu Frantziako Gobernu. Horrela noiz arte?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

Zuberoako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpaina

Tokiko produktuak ezagutzera eman eta Eperra ikastolaren egoera ekonomikoa hobetzen laguntzeko elkartasun kanpaina bueltan da, Nafartarrak taldekoen eskutik. Eskaerak egiteko epea zabalik dago abenduaren 10era arte, NOAUA!n eta tabernetan jarriko dituzten zerrendetan. Eskaerak egin ostean, abenduaren 20an ospatuko dugun Santo Tomas Azokan emango diote amaiera elkartasun kanpainari. Orduan jaso ahalko dira otarrak. Ohi bezala, bi saski hauen artean aukeratu liteke:

Ahüzki otarra, 40 euro.

Produktuak: 900 gr ardi gazta, 125 gramo ahate gibel, 200 gramo bizkotxo artisau poltsa, 500 gramo ezti.

Irati otarra, 52 euro.

Produktuak: 900 gr ardi gazta, 125



Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko otarrak abenduaren 10era arte eskatu daitezke.

gramo ahate gibel, 200 gramo bizkotxo artisau poltsa, 500 gramo ezti eta 750 gramo axoa, xahalki xehatua saltzan.

Informazio gehiago: ikaskoli.eu

Dominika Agergarairi omenaldia

Herritar talde bat, omenaldi bat antolatzen ari zaio duela gutxi zendu zen zuberotarrari. Abenduaren 18an egin asmo dute Sutegin, bertsoak edota kantua uztartuko dituen ekitaldia.

Errigorako otarrak

Datozen egunotan helduko dira Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen salmenta sustatu eta bertako euskalgintza bultzatzeko elkartasun kanpainako otarrak. Erriberako produktu sorta kaxak heldu ahala, eskatu dituzuenekin harremanetan jarriko gara. Otarrak jasotzera zatoztenean egin behar da ordainketa. Gogoan izan, 50 euro balio dute. Informazio gehiago: errigora.eus

309 langabetu urrian, langabezia beherantz

Ikasturte berria hasi genuenetik beherantzko bideari eusten dio Usurbilgo langabezia-tasak. Urrian lanik gabeko 309 lagun zenbatu zituen udalerrri honetan, Estatuko Enplegu Zerbitzuak. Irailean baino 6 herritar gutxiago. Beste behin, jaitsiera nabarmenena, gizonezkoen artean eman da; 10 langabetu gutxiago urrian. Aldiz, igo egin da emakumezko langabetu kopurua, 158tik 162ra.

Buruntzaldean ere zertxobait behera egin du langabeziak. Eta ia 300 langabetu gutxiago Gipuzkoan baita.

Langabezia murriztu arren, kontratazioak ere beherantz egin du joan den hilabetea, 393tik 323ra. Ia kontratu denak, aldi baterako erregistratu ziren, 302 hain zuzen. Eta beste behin, gizonezko gehiago kontratatu ziren (176), emakumezkoak baino (147).

Erraustegiaren aurkako manifestazioa

Lasarteko Aire Garbia herri plataforma berriak Erraustegiaren aurkako manifestazioa deitu du larunbat arratsaldeko 17:00etan Lasarten. Okendo plazatik abiatuko da.

“Teresategi parean isuri nahi dute Aldundiko agintariek hodeizarra, hodei iluna, hodei furano eta dioxinaduna. Hodeia baino gehiago, berpiztu nahi duten hildako mamua. Mamu ez merkea, bai garesti askoa. Garestia dirutan orain, garestiago gaitz eta gaixotasunetan gerroan. Teresategiko pinutegiaren parean, ibaiaren beste aldean, zaurituta daukate mendia mamuari habia egiteko. Aire Garbiak Teresategiko arbolak ditu bere ikurraren iturri eta birika. Birika, putz egin, eta hodeitza furano eta dioxinaduna ezabatzeko. Birika, emakume, gizon eta umeei dei eta dei egiteko. Orain, etxetik atera eta kalera- tzeko. Kaleak betetzeko, grinak ahalegin bilakatzeko, eta etsipenak amets. Etxetik atera eta datorren azaroaren 21ean kalera- tzeko, erraustegiaren kontra manifestazioa egiteko”, deitzaileen esanetan.

Erraustegia Zubietan eraikitzearen aurka

Aire Garbia herri plataforma berriak, PSE-k eta EAJ eta PP alderdiek mozio bana aurkeztu zuten Zubietako erraustegiaz, azaroaren 10ean Lasarten egin zuten osoko bilkuran. Onartu



Larunbat honetan, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da manifestazioa, Lasarte-Oriako Okendo plazatik.

LASARTEKO UDALETXEAN

“Errauste-planta Zubietan eraikitzearen aurka agertu dira PSE-EE, EH Bildu eta Podemos”

zen mozioetako bat, PSE-EE-rena, erraustegia Zubietan eraikitzearen aurka agertzen zen eta Donostialdeko Lurralde Plan Partzialari alegazioa aurkezteak eskatzen zuen. Gehiengo osoz onartu zuten testua, EHBildu eta Podemosen bozkekin. Baina bigarren testu bat ere onartu zen, kasu honetan, erraustegiaren alde EAJ eta PP alderdiek aurkeztu zutena. Mozio hau ere gehiengo onartu zen, PSE-EEK alde bozkatu zuelako. Aurka EHBildu eta Podemosek. Testuak,

besteak beste, lasartearrentzat argindar zerbitzua doakoa izatea eskatzen du. Onartu ez zen hirugarren mozioak, Aire Garbia herri plataformarenak, inork nahi ez duen errauste planta proiektua bertan behera uztea eskatzen zuen.

Sinadura bilketa

Erraustegiaren inguruan Usurbilgo Udalari kontsulta egitea eskatzeko sinadurak biltzen segitzen du, Usurbilen osatu berri duten “Erraustegia Erabakia” herri plataformak. Atxikimendua eman ez duzenok, asteburuetan kalean aurkituko duzue plataforma kideen sinadura mahaia. Haiekin harremanetan jartzeko erraustegiaerabakia@gmail.com helbidea duzue baita.

“Marisa eta Aitzaga Libre” ekimena, azaroaren 28an

Pasa den larunbaterako iragarria zegoen giza-katea bertan behera geratu zen. Deitzaileek ohar bidez berri eman zutenez, “Bart Parisko gertaerak batetik eta epaiketaren atzerapen berria bestetik, abenduak 3an hasiko da, gaurko deialdia azaroak 28ra atzeratzea erabaki dugu”.

Epaiketa, abenduaren 3an

Sare sozialen bidez aditzera eman dutenez, Ezker Abertzaleko 35 kideren aurkako epaiketa bi astez atzeratu da. Abenduaren 3an hasiko da.

Artzi
Patri 2022
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

· Plater konbinatuak
· Ogitartekoak
· Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Gozogintza txapelketa, Erle Egunean

Sukaldean aritzea gustuko izan eta postreak prestatzen iaioak bazarete, hemen zuentzako guztiontzako ekitaldi apropos askoa; azaroaren 29ko XVII. Erle Egunaren baitan egingo den gozogintza txapelketa. Egin beharrekoa oso erraza; zuek prestatu zuen postre gozoa. Gogoan izan, osagaien artean, ezinbestean ezia izan beharko du. Eta Erle Egunez, goizean frontoian izango diren Erle Lagunei eman. Aurpegi ezagunek osaturiko epaimahaiak baloratuko du jakia, eta adi, Erle Eguneko postre onena izenda dezakete eta. Txapelketa honetan parte hartzeko ohitura duten herritarren artean da, Maite Urkiola. Amak hasitako tradizioari segida ematen ari zaio. Lehen eta bigarren sari ugari irabazitakoa da. Zein ote da bere errezeta sekretua?

Noiz hasi zineten parte hartzen?

Maite Urkiola: Edizioaren bat kenduta, urtero aurkezten naiz. 2006tik gutxienez bai.

Sari asko jasotakoa zara gainera?

Bai. Iaz bigarrena irabazi nuen. Beste bigarren sari bat ere badut, gainerakoak lehenengoak dira. Erlojua, koadro bat, eskultura, beirazko bi garaikur, argazkiak sartzeko koadroak... irabazi izan ditut. Jasotzen den dirusariak ere poza ematen du.

Zer dute zure postreek, hainbestetan sarituak izateko?

Hori sekretua da. Ezia behintzat ona izaten dute, baina ez oso gozoa ere. Mimo askorekin eginikoak dira, dudarik gabe. Aurtengorako beste postre bat pentsatua dut.

Errezetak aldatzen joango zinen urteetan?

Hostopila, sagarrarena egin izan dut. Tortila modukoa geratzen da, sagarra barrenean



Maite Urkiola izan da lehiaketan parte hartu duenetakoa. Aurreko Erle Egunean irabazitako sariak ditu eskuartean.

MAITE URKIOLA

"Sagarrarekin asko egin izan ditut, aukera asko ematen ditu. Eta hari, gurina edo likoreren bat nahastu izan diot. Ama kontuotan saltsera samarra zen. Gustukoa izaten zuen, elaborazio lana mimatzen zuen"

ematen du eztiarekin. Sagarrarekin asko egin izan ditut, aukera asko ematen ditu. Eta hari, gurina edo likoreren bat nahastu izan diot. Ama kontuotan saltsera samarra zen. Gustukoa izaten zuen, elaborazio lana mimatzen zuen.

Aurtengoari buruz ezingo dizugu ezer aurreratu?

Ez, hori sekretua da. Egunotan egitekoa naiz postrea, etxe-koek ikusteko. Ia zer iruditzen zaien.

Ama hasi zen txapelketan parte hartzen?

Anaiak esanda. Gure etxean ez da sekula falta izan, oso ondo eginiko bizkotxo zati

bat. Duela bi urte hil zen arte, txapelketako postreak berak egindakoak dira. Gustatu egiten zait eta horretan segitzen dugu.

Sukaldean trebea izan behar al da halako txapelketetan parte hartzeko?

Ez. Ni sukaldaritzan nuloa nintzen. Amarekin hasi nintzen. Txikiardiko tabernakoa da, beti aritu izan da sukaldaritzan, beti izan zuen gustukoa eta oso ona zen, baita gozogintzan ere. Harrentzako ilusio handiena, opari gisa gozogintzako liburu bat jasotzea izaten zen.

Partaideak behar ditu gozogintza txapelketak. Animatu jendea.

Gozogintza gustuko badute, animatu eta parte hartu. Ilusio pixka bat jarri eta imajinazio asko. Ezti onarekin egitea da garrantzitsua. Iaz Eva Argiñano eta epaimahaikideak ikusi nituenean, txapelketan parte hartzeko maila altua behar zela pentsatzen nuen. Baina ez. Irabaztea posible da, ahaleginduta eta postreari poz pixka bat jarrita.

XVII. Erle Eguna

Azaroak 29, igandea

■ 09:00 Ezti lehiaketarako ezti aurkeztea.

■ Gozogintza lehiaketarako gozo aurkeztea.

■ Marrazki lehiaketa.

■ Bideo emanaldia Sutegin.

■ Bildomena nola egin. Ezti ura. Buruhandiak eta erraldoiak.

■ 13:30 Sari banaketa:

-Ezti lehiaketako irabazleak.

-Gozogintza lehiaketako irabazleak.

-Marrazki lehiaketako irabazleak.

■ 14:00 Zozketa.

Antolatzailea: Erle Lagunak.



Goizean goizetik, ezia erosteko aukera izango da.

Larunbateko Gazte Eguna, mugimendua birsortzera dator

Herriko gazteen arteko harremanak sendotu eta gazte mugimendua berreraiki asmoz, Gazte Eguna antolatu dute larunbaterako Usurbilen. Egun osoko festa iragarri dute. "Gazte Eguna sortu da, batez ere ikusten genuelako gazteok ez ginela batera ibiltzen, kalean ere gazteen mugimenduaren presentziarik ez dagoe-lako", antolatzaileen esanetan.

25 bat gazte bildu dira antolaketa lanetarako, 16-18 urte artekoak gehienak. Gazte berri asko tartean. Egitaraua iragartzeko kartelak dioen moduan "gazteria berpizten" ari dela diote, "eta hori oso positiboa da. Motibazio asko dago gazteengan. Jendea gogoz ikusten da bai Gazte Egunerako, bai aurrera begira zerbait egiten hasteko ere".

Ez baitute abiatu duten dinamika Gazte Eguna mugatu nahi. Larunbateko ekitaldiak antolatzeko egindako lehen bileran egon ziren iritzien elkartrukean, "denok bat egin genuen, gazteen arteko harremanak sendotzeko mugimendu bat falta dela adieraztean". Horregatik antolatu dute Gazte Eguna, mugimendua berreraikitzeke abiapuntu izateko eta herrian "guretzat eskaintza" izateko. "Ez badago eskaintzarik, lokalismoan erortzen gara, koadrila eta inkomunikazio egoeretan. Horregatik, goazen gazteok elkartu eta gazte orori begirako ekimenak egitera, mu-



Larunbatekoa, gazteen mugimendua berreraikitzeke abiapuntua izatea nahi dute.

ANTOLATZAILEAK

"Ez badago eskaintzarik, lokalismoan erortzen gara, koadrila eta inkomunikazio egoeretan. Horregatik, goazen gazteok elkartu eta gazte orori begirako ekimenak egitera, mugimendu bat egon dadin"

gimendu bat egon dadin", antolatzaileen esanetan.

Jolasak, tailerrak...

Aisialdia eta formazioa uztartuko dituzte larunbateko ekitaldiek. Jolasak goizean, eta gazteek ikusten dituzten arazoak jorratuko dituzten tailerrak arratsaldean, hezkuntzari loturiko hitzaldiarekin batera.

Bazkalosteko ekimen hauekin egokituko da, Lasarten errautegiaren aurka antolatu duten manifestazioa. Antolatzaileek bat egiten dute, azaroaren 21eko mobilizazioarekin.

Festa egun betea

Gazte Eguna, parranda giroan borobilduko dute. "Animatu, lotsa eta mugak alboratu eta parte hartu, ondo pasako dugu eta. Egun zoragarria izango da. Denon artean harremanak sendotu eta parranda on bat egiteko eguna izango da!", antolatzaileen esanetan. Gogotsu dira, eta giro ederra izango dela iragarri digute. Gazte sentitzen den herritar oro animatzen dute larunbateko hitzorduetara eta jaialdirako atera duten zapia erostera.

Azaroak 21 larunbata

■ 11:00 Jolasak frontoian.

■ 16:30 Gazte tailerrak Po-txoenean.

■ Ondoren, hitzaldia: "LOMCE-EU 2015". Jarraian, frontoiko txosnaren irekiera eta Elektrotxufila elektrotxaranga.

■ 21:00 Gazte afaria frontoian. Txartelak salgai 10 eurotan asteazkenara arte, Aitzaga eta Irrati tabernetan. Zapiak ere salgai taberna hauetan eta Gazte Egunean, frontoian egongo den txosnan.

■ 23:30 Kontzertuak frontoian: Kezka, Emon eta Erokomeri.

Antolatzaileak: Usurbilgo gazteak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

**ETXETRESNEN
KONPONKETAK**

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665

XABIER
Usurbil

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

6,5 hektarea erre ziren Andatzako sutean

Azaroaren 8tik 9ra Andatzako Puelazar inguruan izandako suteak eragindako kalteen balorazioa plazaratu du Usurbilgo Udalak. Guztira, 6,5 hektarea erre ziren. Horietatik kiskalitako 5,5 hektarea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren lur publikoak ditugu. Sua zerk eragin zuen oraindik argitzeke segitzen du, nahiz Udaletik jakitera eman dutenez, “ikerketak aurrera jarraitzen duen”.

Udaletik eskerrak eman nahi dizkiete, “sua itzaltzeko lanetan aritu ziren Usurbilgo erreteneko kideei, Usurbilgo Udal Brigadako langileei, Erreterria eta Hondarribiako erretenei, basozainari eta, baita, bertaratu ziren suhiltzaileei ere”.

Berpizturiko sua

Andatzako sua piztu zenetik gaiaren gertuko jarraipena egin du Usurbilgo Udalak. “Lehen unean, sua itzaltzeko lanetan mendiko erretena aritu zen, suhiltzaileak ere bertaratu zire-



Argitzeke segitzen du zerk eragin zuen sua. Ikerketak aurrera jarraitzen duela aditzera eman du Udalak.

larik. Sutearen ezaugarriak eta kokapena ikusita, mendi protokoloa martxan jarri zuten eta erretenak sua itzaltzeko lanetan jarraitu zuten basozainaren koordinaziopean. Igandean, arratsaldeko 19:00etan, sua itzalita eta perimetroa bustita utzi zuten hauek, protokoloak adierazten duen bezala”, Udaletik adierazi dutenez.

Sutea itzali arren, basozainak eremua zaintzen segi-

zuen. “Igande gauean berriz aktibatu zen sua, eta basozainak erretena berriz biltzeko jakinarazpena luzatu zuen. Sua kontrolpean ez zegoela ikusita, astelehen goizean Erreterria eta Hondarribiako erretenak eta Usurbilgo Udal Brigada ere gehitu zitzaizkion Usurbilgo erretenari”, berri eman du Udalak. Biharamun arratsalde-rako itzalia zuten sutea, baina zaintza lanek segi dute gerora.

Gure Esku Dago, bilera irekia

Bilera irekia deitu du euskaldu-non erabakitze eskubidearen alde lanean diharduen mugimenduak, ostiral honetarako. Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak arratsaldeko 19:00etarako finkatu du hitzordua, Potxoenean. Bertaratzeko gonbita luzatzen diete herritarrei.

Odol emaleen bazkaria, martxan

Urtea borobiltzeko bazkaria antolatuko du Usurbilgo Odol Emaleen Elkarteak, ohi bezala, abenduaren 8an. Patri jatetxean ospatuko den otodurako izen ematea zabaldu dute. Apuntatzeko, deitu telefono zenbakiotako batera: 943 366 040/610 681 563 (Maite), 943 372 487/646 185 716 (Mari Sol), 943 370 723/678 242 132 (Jero), 943 363 102/688 887 537 (Agustina).

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Azaroaren 30era arte luzatuko da. Deialdia bereziki, 65 urtetik gorako herritarrei, haurdun dauden emakumeei, gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendua dago.

Inauteri Festarako gaia, zuen esku

Otsailaren 6an ospatuko dugun mozerro festarako zure proposamena jaso nahi dugu, elkarte@noaia.eus helbidean. Edo idatzi bestela, tabernetan jarri ditugun zerrendetan. Ezin dira errepikatu aurreko urteetako gaiok: Ipui-nak, Erdi Aroa, Musika, Mitologia, Itsasoa, Zirkoa, Olinpiar Jokoa, Xomorroak, Brasil, Marrazki bizidunak, Usurbil, Oesteko herri, Hollywood, Munduko kulturak, Extralurtarrak.

Hauteskundeetarako mahaien zozketa laster

Abenduaren 20ko bozketetarako hilabete baino ez. Espainiako Kongresua eta Senatua berrituko dituen hauteskunde prozesua martxan da ordea. Adi datozen deialdiei:

■ Abenduak 10 arte: posta bidez bozkatzeko eskaera egitea

(Correosen egin daiteke).

■ Azaroak 21-25: hauteskunde-mahaietako kideak aukeratzeko zozketa egingo dute udalek. (Usurbilgo Udalaren osoko ohiko bilkura, azaroaren 24an).

■ Azaroaren 23tik aurrera: errolda-txartela bidaliko zaie

hautesleei.

■ Azaroak 26-28: mahaikideen izendapena jakinaraziko zaie izendatutako partikularrei, bai eta eginbeharren eskuliburua ematea ere (alegazioak aurkezteko epea, azaroak 29-abenduak 5 artean).

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL


KONSTELAZIO FAMILIARRAK
FAMILI ETA ESKOLAN BIZI ETA ELKARBIZI
BALIABIDE SISTEMIKOAK
(HILERO LARUNBAT BATEZ)
688 865 708 AMASA

www.noaia.eus
USURBILGO ATARIA

Familia ekitaldiak (ezkontzak, bataioak...)



Zure ezkontza hondartzan, itsaso aurrean...

- Ezkontza zibilak
- Koktelak lorategian
- Gonbidatuentzat gelak
- Menuetan aukera zabala
- Ezkongaientzat "APAINDU ZAITEZ"
"pack"-a gure esku, (estetika, talasoterapia...)
- Gela berezia ezkonberrientzat



Hondartza bidea 1, Orío 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com

Matrakak taldea: “Hitzetatik ek

Hemen da beste behin, eraso sexisten aurkako eguna, emakumeen aurkako indarkeria salatuko duen azaroaren 25a. Matrakak Usurbilgo Talde Feministak hainbat ekimen antolatu ditu egunotarako, gu guztion kontzientzia piztu, sentsibilizatu eta “matxismoari planto egiteko”. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua dela diote Matrakek, eta indarkeria hau behingoz akabatzeko gu guztiok beharrezkoak garela gogorarazi digute lerrootan.

Azaroaren 25a ate joka dugu. Aurtengoan egun horri begira, zer nabarmendu nahiko zenukete?

Matrakak: Guztiok dakigun bezala, azaroaren 25a indarkeria sexistaren aurkako eguna da. Zer nabarmendu nahiko genukeen? Ongi dagoela egun bat izatea, urtean behin. Egundak bat non politikariek euren kontzientzia garbitzeko hitz politak esango dituzten, egundak bat non hedabideek puntu morea jarriko duten telebistako pantailetan. Eta datozen 364 egunetan zer? Hitzak hai-zeak daramatza eta, beste behin ere, hau argi geratzen da, izan ere, agenda politikoetan lehentasunik ez du egiturazko zapalkuntza honi errotik aurre egiteak, bigarren mailako kontua da, beti. Hedabideetan ere eguneroko ogia dugu erailketa matxista baten, bortxaketa baten ala, oro har, eraso sexista baten berri ematerakoan morboari uko ezin egitea. Jarrerok ez dute indarkeria sexistaren aurka egiten. Hitzetatik ekin-tzetara pasa beharra dago.

Ondorio larrienak dituzten indarkeria kasuen berri izaten dugu sarri. Erasotuek hara-tago doaz ordea.

Bai, halaxe da. Erasotuek larrienak detektatzeko errazena badira ere, hauek ahalbidetzen dituzten eta detektatzea hainbeste kostatzen zaizkigun hamaika eraso daude aurretik. Hauek ez dute, inondik inora, garrantzia gutxiago. Askotan izebergaren metafora erabiltzen da, indarkeria kasu agerikoenak erailketa, bortxaketa edo jipoiak kasu, izebergaren urazaleko za-



“Indarkeria kasu oro da garrantzitsua”, Matrakak taldearen esanetan.

MATRAKAK

“Usurbil ez da uharte bat eta indarkeria matxista kasuak ez dira beti kanpoan gertatzen, etxean ere gertatzen dira. Azken aldian, erasotuek salatu egin dituzte, oihartzuna izan dute kasuok, baina zenbat gertatzen dira egunerokoan eta ez dute argirik ikusten?”

tia irudikatuko lukete; baina hauetara heldu baino lehenago eraso sotil asko daude tartean, ez hain nabarmenak, detektatzea gehiago kostatzen zaizkigunak. Azken horiek izebergaren urpeko zatia osatuko lukete.

Garrantziaren kontua azpimarratzea gustatuko litzaiguke. Aurrez aipatutako eraso sotilek, mikromatxismo moduan

ere ezagunak direnak, ez dute garrantzia gutxiago, izan ere, ageriko indarkeria kasuak sostengatzeko ez hain agerikoen beharra dute (urpekoena). “Mikro” aurritzia izanagatik jarrera matxistak dira, bere horretan. Indarkeria kasu oro da garrantzitsua, menperatzaile eta menpekoak sortzen dituelako, baldintza ezberdinetan posizionatzea dakarrelako.

Azken aldian Usurbilen ere zenbait indarkeria kasu izan direla salatu duzue. Kasuon aurrean zein erreakzio egon dela sumatu duzue?

Usurbil ez da uharte bat eta indarkeria matxista kasuak ez dira beti kanpoan gertatzen, etxean ere gertatzen dira. Azken aldian, erasotuek salatu egin dituzte, oihartzuna izan dute kasuok, baina zenbat gertatzen dira egunerokoan eta ez dute argirik ikusten? Gizartean, orokorrean, kasu isolatu moduan saltzen zaizkigu, ezezagun batek gauzez bakarrik

leku bakarti eta ilun batetik pasatzen den emakume bati erasotu diola pentsatzen da, baina ez da hala. Erasotzaileen %80a erasotuaren ezaguna izaten da eta uste oker, baina oso zabalduaren aurka, egun argiz eta ohiko lekuetan gertatzen dira.

Kasuon aurrean modu guztietako erreakzioak egoten dira, batzutan errudun sentimendua izaten dute erasotuek, zerbaitegatik gertatu zaiela uste dute. Lotsatu egiten dira. Askotan, ingurukoek zalantzan jartzen dute erasotua kontatutakoa, nahi gabe, epaitzera jotzen da, gizartean, oro har, oso barneratua dagoen jarrera da hau. Honela, erasotuari dudak sortzen zaizkio, ez-baian jartzen du jazo-takoa “hainbesterako ote da?” galdetzen dio bere buruari. Eta bai, bada. Ezin gara beti isilik gelditu mundu mailako bakeagatik, hori ez baita bakea. Ez gure bakea behintzat.

Nola jokatu edo kudeatu beharko lirake halakoak gertu gertatzen direnean?

Nola kudeatu beharko lirake halakoak galdetu duzu, guk autodefentsa feministaren aldeko aldarria egiten dugu. Autodefentsa feministak potentzialki erasotua izan zaitzkeela onartzerazaramatza eta hori oso ‘heavy’a da, baina emakumeon kasuan hala da. Horregatik, autodefentsa feministak betaurreko moreak janzteko, erasoak identifikatzeko eta egiturazko zapalkuntza ulertzeko bitartekoak ematen dizkigu, baita eraso sotilenen aurrean erantzuteko trikimailuak ere.

“Kintzetara pasa beharra dago”

**Emakumeen aurkako indarkeria-
ren aurrean, beste zerbait aipa-
tzeko?**

Matrakak: Eraso sexistaren bat gertatzean, morboak gudan nahi baino eragin handiagoa izaten duela da. Hau da, askotan, erasotua nor izan den jakin nahi izaten da eta herrian ere gauza bera pasa zaigu. “Nor erasotu dute?” galdetu digute, behin baino gehiagotan, eta ez emozionalki nola aurkitzen den erasotua (anonimotasuna mantenduz), zer eraso sexista izan den edota nor izan den erasotzailea. Gizartean erasotua da seinalatua eta ez erasotzailea. Atentzio guztia erasotuaren gainean jartzen da. Eta honek ez luke hala izan beharko.

Azken elkarretaratzeetan adin eta sexu ezberdinetako herritar gehiago sumatu da. Usurbilen ere, emakumeenganako indarkeriaren aurkako salaketa aldarria indartzen ari da?

Baietz esango genuke, hasi ginenetik azkenekoraino nabarmentzen da aldea, geroz eta gehiago batzen gara



“Jendeak, ‘Feminismo’ hitza gizonezkoen aurkako mugimendutzat du eta ez da hala. Feminismoak pertsona askez osaturiko jendarte parekidea du helburu”.

MATRAKAK

**“Gizartean erasotua
da seinalatua eta ez
erasotzailea.
Atentzio guztia
erasotuaren
gainean jartzen da.
Eta honek ez luke
hala izan beharko”**

elkarretaratzeetan eta hori pozgarria da. Horregatik, le-

erro hauek aprobetxatu nahiko genituzke eskerrak emateko eta beraien elkartasuna adierazten jarraitzeko eskatzeko herritarrei. Hala ere, pozgarriena elkarretaratzerik egin behar ez izatea litzateke, baina, zoritxarrez, halakoxea da errealitatea.

Ah! Eta nahiz eta geroz eta gehiago garen indarkeria sexistaren aurka kalera salatzerat ateratzen garenak, ez dugu aipatu gabe utzi nahi herrian (eta herritik haratago) femi-

nismoak dituen erresistentziak. ‘Feminismo’ hitza, jendeak, gizonezkoen aurkako mugimendutzat du eta ez da hala. Feminismoak pertsona askez osaturiko jendarte parekidea du helburu. Ez die, inondik inora, gizonezkoei hezkuntza, osasuna ala boto eskubidea ukatu nahi, feminismoak ez du gizonen bizitzekin amaitu nahi edota ez die ablazioaren pareko erokeriarik gauzatu nahi. Matxismoa da botere harremanetan, menperatzaile eta menpekoe-tan, oinarritzen duena jendarte ordena; feminismoak ez du zapalduki nahi inon.

Egunotarako antolatu dituzuen ekimenetara zergatik ez dugu huts egin behar?

Gaia formatzeko, kontzientzia pizteko, gozatzeko, sentibilizatzeko, errealitate ezberdinak ezagutzeko, herritarrak beste modu batera harreman-tzeko, egunerokoan ateratzen ez diren gai ikusezinez hitz egiteko, eta, batez ere, matxismoari planto egiteko. Guztiok beharrezkoak garelako.

Eraso sexistaren aurkako ekimenak

Azaroak 20, ostirala

■ 18:00 Jardunaldia: “Eztabaida feministarako Zapatismoaren ekarpenak: bizitza osoa indarkeriaren kontra borrokan”.

Hizlariak: Cecilia Santiago (Chiapas, Mexiko), Idoia Arraiza (Bilgune Feminista), Cony Carranza Castro (“Mujeres del Mundo”), Kattalin Miner (Medeak).

Informazio gehiago: lumaltik.org

Elkarlanean: Matrakak, Lu-

maltik Herriak, Medeak, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia. Ondoren, luntxa.

■ 22:00 Mor More taldearen kontzertua Aitzagan: “Giro akustikoak lantzen dituen banda zarauztarra da honakoa. Bi gitarra, perkusioa eta ahots goxoak dira hirukoaren ezaugarriak”.

Azaroak 22, igandea

■ 13:00ak aldera, “Matxis-

moak eraildako emakumeen urratsak” oroitzapen ekitaldia Irazu kalean. “Aurten Euskal Herrian izandako erailketa matxistak ekarriko ditugu gogora”.

■ 18:00 Te doy mis ojos (2003) film proiektzioa Sute-gin. “Neguko gau batean, Pilarrek ihes egiten du bere etxetik. Lau gauza daramatza eta bere seme Juan. Antonio-rengandik, tratu txarrak ematen dizkion eta 9 urtez bera-rekin ezkondata daramatzen

senarrarengandik ihesi doa. Antoniok ez du itxaroten, bere bila doa”. Aktoreak: Laia Marull, Luis Tosar, Candela Peña. Zuzendaria: Iciar Bollain.

Azaroak 25, asteazkena

■ 19:00 Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna: elkarretaratzea Mikel La-boa plazan.

Antolatzailea: Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista.

Etxeko altxorrak ezagutzen

Harribitxi asko ditu udalerri honek. Horietako batzuk ezagutzen, edo hauetaz gehiago ikasteko aukera izan genuen igandean, Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik. Igaro bai, baina sarri agian erreparatu ez diogun ondare aberatsa du herri honek, ezagutzeke oraindik. Udalerria sakonago ezagutzeko aukera izan zuten azaroaren 15ean, Arratzaindik Aginaga aldera egindako irteeran parte hartu zuten 60 bat lagunek.



Aurreko igandean, Arratzaindik Aginaga aldera egindako irteeran lagun ugari batu ziren.

Lehenago antolatu izan ditugun ibilaldietara joandako herritar batek baino gehiagok errepikatu zuen esperientzia eta lagun berriak batu dira oraingoan. Eguraldia mundiala gainera. Ezin gehiago eskatu. Zapore gozo askoarekin amai-

tu dugu aurtengo NOAUA! Kulturaldia.

Kulturaldi oparoa

Ibilaldiaren bezperan, 80 bat lagun animatu ziren baita Dejabu taldekoei "Arrastoak"

antzezlanera. Jendea gustura Sutegin ikusitakoarekin.

Asier Azpiroz eta Ane Labaka bertsolariekin Artzabalgo ekitaldi aretoan ostiralean eginiko afarirarako ere taldetxo bat bildu zen, eta giro goxo askoan aritu ziren ber-

tsotan eta jan edanean.

Eta Yolanda Arrieta idazlearekin, "Argiaren alaba" liburuko pertsonaia eta istorioen jatorrira, denboran zehar bidaiaitzeko aukera izan genuen. Datorren urtean, gehiago.

noaUA
euskararen
aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaUA.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ! ➔
eta opari eder hau eskuratu!

Bazkidetza: urtean 36 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaUA.eus

NOAUA BIDAIAK
BIDAIAITZEN LAGUNTZEN DU

GREZIAKO IRLETARA KRUZEROA

IRTEERA: 2016ko irailaren 12an Lasartetik

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943 373 613
info@noaobidaiaik.com

eskeintza gehiago www.noaobidaiaik.com

HIPODROMO ETORBIDEA 10 · 20.160 LASARTE ORIA GIPUZKOA

Reiki taldea, herritar gehiago hartzeko prest

Orain arte Santuenea auzo elkarteko egoitzako ohiko erabiltzaileak gerturatu izan dira, baina orain udalerrri osora zabaldu nahi dute egiten duten lanketa. Jarduera ezagutarazi eta usurbildarrak Reiki egitera animatu nahi dituzte.

Reiki saioetan parte hartzeko interes duzuenontzat; asteazken arratsaldeetan biltzen dira, 18:30-20:30 artean Santueneko auzo elkarteko egoitzan. Baina bertaratu aurretik, deitu 619 791 170 telefono zenbakira (Abelina). 15 eurokoa da, gastuei aurre egiteko finkatu duten kuota. Izen emateko deialdia irailean egin zuten arren, apuntatzeko epeak zabalik segiko du ikasturte osoan zehar.

Aurrez izen ematea eskatzen dute, talde barruan antolaketa lanak behar bezala egiteko. "Zenbat pertsona gaitozen Reiki ematera, horren arabera hartuko dugu jendea", ohartarazi dutenez. Lehen aldiz doazenontzat, lau saioetan segidan etortzea aholkatzen diete, datorrenak aldaketak esperimentatu ditzan.

Norbere lanketarako lagungarria

